

2015/12/10

Abenduaren 16tik 19ra bitartean ospatuko da X. Feministaldia

Asteazkenean hasi eta larunbatera arteko egitarau oparoa antolatu du Plazandreok-ek, Donostia 2016ren eta Tabakaleraren kolaborazioarekin.

Hitzaldi, mahai-inguru, filme emanaldi, performance eta dj-ek osatuko dute, besteak beste, #kontra lelopean egingo den X. edizio hau.

Feministaldiaren X. edizioa aurkeztu du gaur Plazandreok Emakumeen Plataforma Politikoa, Donostia 2016ren eta Tabakaleraren kolaborazioarekin eta Emakunde, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Donostiako Udala laguntzaile dituela.

Aurten 10 urte bete ditu Donostian erreferente bilakatu den kultura feministaren jaialdiak eta egitarau oparoa antolatu da hori bera ospatzeko. Abenduaren 16tik 19ra bitartean ospatuko da eta hitzaldi, mahai-inguru, filme emanaldi, performance eta dj-ez gozatzeko aukera izango da lau egunotan zehar.

Donostiako Kultura Feminista Jaialdiak urteak daramatza arte eta politika garaikidearen jarduera kultural esanguratsuenak ikuspegi feministatik lantzen. Modu eta leku ezberdinetan arauak zalantzan jartzen eta betaurreko moreekin istorio berriak kontatzen dituzten sortzaile eta ekintzaileen topaleku bilakatu da jaialdi hezitzaile eta ludiko hau. Horregatik, Donostia 2016 Europako Kultur Hiriburuak hautagai zenetik bertatik egin zuen apustu Feministaldia kultur programan, Bizitzaren Itsasargiaren baitan, sartzearen alde.

#kontra

Aurtengo leloa #kontra da; izan ere, diskurtso feminista egungo botere harremanek sortutako indarkeriaren aurkako borrokak ezaugarritzen du, hain justu. Feminismoaren zereginetako bat indarkeria horiek desnaturalizatu eta botere harreman horiek irauliko dituzten marko teoriko eta praktikak sortzea izan da. Feminismoa normalitatea eraikitzen zuten jakintza guzti horiei #kontra ekinez eraiki da.

Disidentzia hori eraikitzen jarraitzeko asmoz antolatu da aurtengo egitaraua. Asteazkenetik larunbatera bitartean luzatuko da jaialdia eta ekitaldiak Tabakaleran eta Guardetxean egingo dira. Egitaraua Feministaldiaren (feministaldia.org) eta Donostia 2016ren (dss2016.eu) web orrialdeetan egongo da ikusgai.

*Elkarrizketetarako kontaktua: josebe.iturrioz@gmail.com

laguntzaileak/apoyan



EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA
DE LA CULTURA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad

EGITARUA

Asteazkena 16

Tabakalera Z aretoa

18:00-21:00: Jakintza eta ekonomia

Lorena Cabnal eta Magdalena Leon

Bi pentsalariek kapitalismoa eta generoaren arteko harremanaz hausnartu dute. Egungo ekonomia eta jendarte sistemak generoari dagozkien botere harremanetan nola oinarritzen diren aztertuko dute.

21:00-22:00: Luntxa + Dj Kuki

Saioa luntx batekin eta Dj Kukiren eskutik ElektroKunbia musikarekin amaituko da.

Osteguna 17

Tabakalera Z aretoa

18:30-21:00: 'Yes we fuck!' dokumentala eta mahaingurua

Antonio Centeno – Dokumentaleko egile eta Yes We Fuckeko kidea. <http://www.yeswefuck.org/>
Aniztasun funtzionala duten gorputzei ukatutako sexualitatea azaleratzen duen dokumentala da hau. Akats eta elbarritasunetik definitutako gorputzei ukatutako sexualitate propioa eta gorputzarekiko autogestioarekiko eskubidea.

Ostirala 18

Tabakalera Z aretoa

18:30: Artea eta Feminismoa

O.R.G.I.A - <http://besameelintro.blogspot.com.es/>

Cabello/Carceller- <http://www.cabellocarceller.info/>

Gonbidatuak, arte munduan izan duten esperientziaren inguruko mahai ingurua, hauek, feminista gisa definitzen dute beren burua. Arte feminista existitzen da? Edo hegemonikoa den testuinguru artistiko matxista bat dago?

20:30 Performanceak

Sahatsa Jauregi

Ojo por ojo, ojo por ojo

Performance bat aurkezten du irudiak kontestu desberdinetan aurkezteko moduz eta honek esangura eta irakurketa alternatiboak produzitzeko luzatzen duen aukeraz.

Magmadam - <https://magmadam.bandcamp.com/>

Soinuan oinarrituriko performance-kontzertua, bateria, soinu elektronikoak eta ahotsa nahastuz, horrela PORNOISEa sortuz.

Iaguntzaileak/apoyan



EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA
DE LA CULTURA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

Larunbata 19

Tabakalera Z aretoa

11:00-14:00 Mugaren arkitektura: Kartzela

Arantza Santesteban, Oihana Etxebarrieta eta Zuriñe Rodriguez

Generoa eta zaintza kontutan hartuz kartzeletako errealdadea hurbiltzea helburu duen mahai-ingurua. Partaideek ekarpenak ikerkuntza akademikotik egingo diduzte, baita ikuspuntu pertsonaletik ere.

17:00- 19:00 Kontaktu pedagogia berriak: pedagogia feministen eta estrategia performatiboen arteko gurutzaketa

Judith Vidiella

Zein ekarpen egin diezaiokeete begirada eta praktika feministek pedagogiari? Ezagutza gorpuztuak; kontzientziario kritikoaren esperientziak; afektibitate abitutako ikasketa prozesuak; praktika kolaboratiboak; norberaren irudikapen prozesuak; materialtasun berri eta praktika performatiboetatik esperientziazioa... Baina genealogia hau ez da gauza erraza: pentsamendu garaikidean performatiboaren eta performancearen arteko tentsioak, kontraesanak, botere harremanak eta errepikapen arautuak agerian jarri ditu gure eguneroko praktiketan, beraz, pedagogian baita ere.

19:00-21:00 Euskalgintza eta Feminismoa

Irene Arrarats, Lorea Agirre eta Idurre Eskisabel

Azken aldi honetan feminismoaren eta euskalgintzaren arteko loturak geroz eta estuagoak dira. Mahai honetan gonbidatuek harreman honen berri emango dute.

22:00 Performancea

Guardetxea

#erractus-en 'Alde' errezitaldi performatiboa.

Danele Sarriugarte, Jule Goikoetxea eta Kattalin Minerrek egindako performancea, oinarrian politika, feminismoa, ironia eta euskal literatura izanik.

00:00 – 03:00 Festa

Las Marines Diskajartzaileak + DJ Mapatxe

laguntzaileak/apoyan



EUROPAKO KULTUR
HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA
DE LA CULTURA



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasun Bulegoa
Negociado de Igualdad